

# NORI BERE... NOLA?

P. BERRONDO

## Gaiaren zailla

Aurten OARSO'rako eskeiñi zaiguna. Etorkiñen ugaria, ugari muturia, nolaz egokitu? Galdera arturik, erantzun-eske astea aski noski. Bakoitzak bere aldetik ikusiko du noski gaiaren ari-mataza; nolaz... nori berea garbitu ta zuzendu? Ortik ara, eskubideak bait-ditugu mintzo; eta zital-mintzoan bereala. Ark ba du bere bizikerarako eskubidea; onek ezin lezake bere eskubiderik galdu; eta bitartekoak ere ba ditu bere eskubideak. Nolaz bada au guzia garbitu eta txukundu eta egokitu?

Noski-edo, galderak izango ditu erantzunak. Gizarte-legetik erantzungo duanik ez da faltako; etorkizunari begira saiatuko danik ere ez noski; bertako landarea sasipean galdu ez dedin dei-egingo duanik ere izango da, apika; ainbeste ta ainbeste bait-dira eskubideen matazaren ari-muturrak.

Ez da ez erraxa gai au bear bezela garbitzea. Gure Lege Zearren aginduak eta bertsolarien kezak (Xempelar'enak lekuko) eta kondairan zear sorturiko eztabaidak eta elkarzapaltzeak... Ez da ez erraxa erantzuna!

## T.V.E. "La Clave", 12-VI-81

Adi-adi egon nintzaien elkar-izketa artan. Ez ziran nolanaikoak an mintzatu ziranak. Lege-gizonak, agintariak, gizartelariak, eta... ameslariak ere bai noski. Ez ziran nolanaikoak. Baiña beti-beti ika-mika bizian pizten ziran, gaiaren muiña ukitzen zuten bakoitzean. Katalan-izkeraren eta gartzeleraren elkarrekikoa... nola?

Galdera bere otzean arturik, ainbestean erabakitzen zuten; egoki aski. Baiña (emen bai... benetako baiña) gaiaren biziak bere biotz-taupadak ematen zituanean, antxe ta antxe bakoitza berean, berearen alde, ezin amore (amur) emanik. Ez zan emengoa, angoa baizik; baiña ba zuan elkarriketak bere esan-naia guretzat ere. Gizarteko biziaren elkarrekikoa baitzan. Eta an ta emen berdintsu izaki. Nork nori... amore eman? edo-ta bestela... nola elkarrekikoa egin? eskubideen ari-mataza naastu ta korapildu egiten beti ere. Baiña, ba zuan bere alde ona ere. Nolabait oreka on bat aurkitu nai; egokiera on bat billatu ta erabaki nai. Eta ez da gutxi. Elkarrekiko gogo onak egin bait-lezake, zerbait egitekotan. Baiña baiña...

## Joxe Joakiñ'ek erantzun

Emen aipatu ditudan gaiak nituan noski izpide aako artan, elizako sermoian. Eta, sermolariek oi dugunez, aisa-xamar auzia erabaki eta erabakiak eskeiñi. Elkarrekiko barkapena ale-

gia; biotz-beraaz eraman eta barkatu ere. Ortik ara zala bide ona...

Bukatu genduan gure elizkizuna eta elkar ikusiaz mintzo berriketan eliz-atarian, meza-ondorean.

Ba zan entzuleen artean gizon bat; gogoan dut; iztun egokia; irri-far egiten zakiena; bertsolaria ere ba zan, aldarte oneko zegonean. Onela esan zidan bat-batean:

—Apaiz jauna, auxen lege exkaxa! Orduan, gauzak orrela, lotsagabeena nagusi? Auxen bai lege exkaxa!

Ez daukat gogoan nere erantzuna. Baiña berriketa gozoan aritu giñala bai.

Gogoan dut bai Joxe Joakiñ'en erantzuna. Orrelakoa oi bait-da gure biotzak ematen diguna; orrelakoxea gure adolak ematen diguna...

## Nori berea... bere utsean, leia ta burruka

Bai! Nori berea da zuzenbidea! Baiña, bere ortan utsean, ez du elkarrekiko pakerik sortzen. Bearko du besterik; biotzetan gogo ona ere bearco du, zuzenbideak egokituko badira. Eta betiko galdera.

—Nork nori amore eman?

Ortara bait-dator azken-azkenean elkarrekiko eziña. Esku-bide utsari begiratzen badiogu, alegia.

Et barka bezait, Aita Santuaren itz batzuk aipatu nai nituzke emen. Ba dakit, jakin, orrelako itz nagusieri entzungor egiten diegula.

Baiña, zentzu onekorik ba al da besterik?

Onela dio bere "Dives in misericordia" eskutitzean:

"Aski al da nori-berea bere utsean?... Ez da aski. Leengo eta gaurko bizikeraren ikus-ikusiak erakusten digu; bere utsean ez da aski nori-berea; leia-ien leiaz... elkar-burruka bizian bata-bestearnak ukatu ta zapaldu egiten ditu. Ez noski... nori berea opa naiean saiatu bear ez dugulako, gogo on oiek beren ongarrria azpi-azpian bear dutelako baizik. Maitasunaren ongarrria!"

Itz auekin bukatu nai dut. Gaiaren zailla eta legearen exkax antza eta biotzeko kezka-miñak gogoan ditudalarik. Baiña, nolanai-ere, EGIA'ren AOLKUA aipatuz. Nori berea MAITASUNEAN oratua!